




LH-6. MAILA  
5. UNITATE DIDAKTIKOA  
"Giza Eskubideak nire familian"



**GIZA ESKUBIDEAK FAMILIAN-1.GIZA ESKUBIDEAK: TRATU ONAK**

Idatzi zure izena:



Giza eskubideak pertsona guztien arteko berdintasun printzipioa garatu eta zehazten dute. **Familian GIZA ESKUBIDEAK betetzen direnean**, Giza eskubideen proiektua gauzatzen denean, tratatu onak daude.

Familiaren bizikidetzan berdintasunez eta giza eskubideak errespetatuz egiten denean, **TRATU ONAK daude**: elkarren arteko errespetua eta pertsona bakoitzaren babesa, bizitza proiektu pertsonal guztiak aurrera eramateko onarpena eta laguntza. Familia zoriontsu bizi da.

Alderantziz, Giza Eskubideak errespetatzen ez direnean, berdintasuna ez dagoenean, tratatu txarrak egoteko arriskua handitu egiten da.

**1. - Idatzi "BAI" hitza, GIZA ESKUBIDERANTZ, tratatu onak lortze aldera, daramaten familian egon daitezkeen portaeretan:**

	Denok eskubide berak izatea eta etxeko ardura eta lanak partekatzea	
	Guztion beharrak, interesak, gustuak eta ekarpenak kontuan hartzea	
	Bakoitzaren askatasuna eta bizitza proiektua errespetatzea	
	Denok aitak esaten duena beti egitea eta bestela berak zigortzea	
	Guztion artean gauzak hitz eginez konpontzeko denbora hartzea	
	Bakoitzak nahi duena egiten saiatzea besteak kontuan hartu gabe	
	Arazoak daudenean, borrokatu eta indartsuenak nahi duena egitea	
	Ama etxeko ardura, lan, premia eta eginbehar guztiez arduratzea	

**2. - Idatzi "TRATU ONAK" hitzak, TRATU ONAK daudela adierazten duten egoeretan:**

Elkarrekin egoteko, hitz egiteko eta planak egiteko denbora izatea	
Denok elkarrekin ondo pasatzea, barre eta jolas asko eginez	
Beldurrez egotea istilu, garrasi eta borroka asko egoten direlako	
Denok besteen gauzengatik galdetzea, gertatutakoak partekatzea	
Zerbait egiten denean beldurrez egotea, agian gaizki egin delako	
Ahal den eta gutxien hitz egitea nabarmendu gabe pasatzeko	
Etxean oso lasai, pozik eta gustura egotea, babestua sentitzea	
Bakoitzaren lagunak etxera ekarri ahal izatea eta ondo onartzea	

→ **Familian ondo eta zoriontsu bizitzeko, berdintasuna eta Giza Eskubideak bizi.**